


Egon hadi lo



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Garagardoa edaten duena, segituan da lo; lozorroan dagoena, bekaturik egin ezinik dago; bekatu egiten ez duena, zerura seguro! Beraz, edan dezagun agudo!”.

XVII. mendeko logika-liburu bateko esaldi jostagarri baten itzulpen gutxi-asko jostalaria, horra. Zurrutaren apologiari ez nuke egin nahi, ordea, eta esaldiaren laburpen edo aldaera sanoxeago bat ekarri nahi nuke gaur lerro hauetara, aldarri: “Lozorroan dagoena, bekaturik egin ezinik dago; bekatu egiten ez duena, zerura seguro! Beraz, lo egin dezagun luzaro!”.

Heriotzak berdintzen omen gaitu behin betiko loan, pobrearen esperantza hauspotzeko herri-jakintza horrek irakatsi digunez; baina, hori baino lehen, behin-behineko loak ere berdintzen gaitu pixka bat. Boteretsua baita loa, inondik ere, eta artegarria ere bai, ondo pentsatuz gero: “Morfinadun suge” bat, Unai Iturriagaren hitzetan. Gure hizkuntzan bertan nabari da zenbaterainoko ahalmena aitortzen diogun: guk “lo hartzen dugu”, bai, baina berdin “hartzen gaitu loak” gu. Loaren atzapar samurretan gara kalteberen den-denok, eta kalteberatasun-aldi horrek, hala ere, se-

gurtasuna ematen digu nolabait: bizirik iraunarazten digu. Azken batean, giza-kiak denbora gehiago eman dezake jan gabe, lo egin gabe baino: hamaika egun, horixe omen errekor ofiziala. Ez alferrik, atzituak lo-ezinean edukitzea da tortura-molde ezagunenetakoa bat.

Sekula goserik pasatu ez dugunok (ez gara asko munduan) eta aspaldian goserik pasatu ez dutenek (horiek gehixeago agian) onartezintzat joko genuke gosea ekarriko ligukeen sistema bat; altxatu egingo ginatke (pentsatu nahi dut) erantzuleen kontra. Alabaina, lo-zorretan bizi gara denok, eta lasai antzean onartzen dugu hori, “dagoena dago” esanez, gure begi-zuloen beltza kasualitatea balitz bezala, halabeharria, jainko arraioren batek gure aurpegian negatiboan errebelatutako ilargi-erdi pare saihetsezin bat. Zonbi-saldo bat gara, kafeinomano madarikatuak, eta gorputzak arrastaka eramaten gaitu hara-hona, bateria erdi gastatuko androide disfuntzionalak bagina bezala... Baina normala omen. Alderdi politiko bakar baten programan ez duzu lehentasunezko konponkizun gisa aurkituko lo faltaren epidemia. Lan-baldintza erogarriak direla (txandakako lanaldiak, estresa...), zaintza-lan

itogarriak direla (zenbat aldiz eteten zaio loa zaintzaile dabilenari?), argi- eta soinu-kutsadura dela...: azkenerako, lo erraz samarrekoa ez denak nahikoa lan du behar adina eta behar bezala atse den hartzen, eta, hori gutxi balitz bezala, hedabideek tarteka-tarteka gogoratzen digute, kulpak pertsonalizatzeko ahalegin temoso horretan, Massachusettsko Unibertsitatearen arabera-edo lo faltak bizi-itxaropena murrizten duela, eta gaitzotzeko arriskua areagotzen. Beste larribide bat, lo lasai egiten izugarri laguntzen duena.

Nik dakidala, loa ez da giza eskubide bat, bere hartan. Joan den udan, ordea, Erresuma Batuan kanpaina deigarri bat hasi dute gobernuak loa eskubide gisa onar dezan (*#righttosleep*), argudiatuak herrialde horretan “lo-kalitate kaskarra” dutela hogeitabi milioi biztanlek, eta horrek ondorio ezin kaltegarriagoak dakartzkiola gizarteari. “Loa ez da pribilegio bat”, dio, tinko, mugimendu horren manifestuak. Baina, mundua zer den, aldarriaren bultzatzailea ez da herritar-talde engaiatu (eta nekatu) bat: online koltxoi-denda bat baizik. Lo nahi gaituen sistema horrek berak salbatuko gaitu, seguru, sonanbulismo honetatik. ●